

## Txertatze plan antolatu bat behar dugu Hezkuntzan

*Txertoak banatzen hasi dira dagoeneko, baita txertoa jasoko dutenen lehentasunezko taldeak finkatzen ere.*

Lehenengo, egoiliarrak eta adinekoen egoitzetako langile sanitarioak eta soziosanitarioak jasotzen ari dira, ondoren osasun-arloko eta esparru soziosanitarioko langileen txanda da. Laster espero dugu Hezkuntzako langileon txanda ere izatea, gela itxietan ikasle kopuru handiekin lan egiten dugu eta.

Langile horietan pentsatuz, kontuan hartu beharko da, **kolektibo jakin batzuek** (Haurreskolak Partzuergoko hezitzaileak, Haur Hezkuntzako langileak, PTak, Entzumena eta Hizkuntzakoak, Hezkuntza Laguntzako espezialistak, fisioterapeutak, Zeinu Hizkuntzako interpreteak, espazio soziosanitarioetan lan egiten dutenak, jangela arduradunak, etab.) **musukoa erabiltzen ez duten ikasleekin** lan egiten dutela.

STEILASek ezinbestekoa ikusten du lehenbailehen hezkuntzan **txertatze plan antolatu bat** diseinatzea, aurreko paragrafoan aipatutako kolektiboei eta zaugarri izendura jaso ez badute ere egoera zaurgarrian egon daitezkeen langileei (60 urtetik gorakoak esaterako) lehentasuna emango diena

## Educación necesita un plan organizado de vacunación

*Las vacunas ya han comenzado a distribuirse, así como a fijarse los grupos prioritarios de vacunación.*

En primer lugar las están recibiendo las personas que viven en las residencias y el personal sanitario y sociosanitario de las residencias de personas mayores; después es el turno del personal sanitario y del ámbito sociosanitario. Esperamos que en breve sea el turno del personal de Educación, ya que trabajamos en aulas cerradas con un gran número de alumnos y alumnas.

Pensando en este personal, habrá que tener en cuenta que determinados colectivos (educadoras del Consorcio Haurreskolak, personal de Educación Infantil, PTs, Audición y Lenguaje, especialistas de Apoyo Educativo, fisioterapeutas, intérpretes de Lengua de signos, el personal que trabaja en espacios sociosanitarios, responsables de comedor, etc.) trabajan con alumnado que no utiliza la mascarilla.

STEILAS ve imprescindible diseñar cuanto antes un plan organizado de vacunación que dé prioridad a los colectivos mencionados en el párrafo anterior y a los trabajadores y trabajadoras que, sin haber sido designados como vulnerables, puedan encontrarse en situación de vulnerabilidad, como personas mayores de 60 años.